

Nafar**karia**

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko ekainak 11 / III. urtea / 79. zenbakia

Unibertsitate Publikoaren urrats garrantzitsuen

Heldu den irailean hasiko dira Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) klaustro eratzaileak osatzeko bilerak. Orduan hasiko da duela lau urte martxan jarri zen unibertsitate honen funtsezko etapa: bere autonomia zehaztu eta bideratuko duena. Benetako unibertsitatea osatuko duena, alegia.

Lau urte hauetan hiru errektore eta garai zailak izan dira bertan, bereziki botere publikoek egindako eskusartzeen kariaz. Kanpora begira, horrek itxura nahasia eta gatazkatsua eman dio, eta



azken asteotan zenbait berrik ere ez dute kontrarik iragarri. Barrutik iritzi kontrajarriak dira honi buruz eta batzuek «giro nahasia» dagoela aipatzen badute, hala nola Alberto Gonzalez errektore ohiak, besteek, tartean gaurko errektore Juan Garcia Blascok, unibertsitate publiko baten eduki behar duen izakera «ireki eta demokratikoa» leporatzen dizkiote kritika eta eztabaidak. Ia denak, ordea, baikor dira unibertsitatearen etorkizunaz, eta orain arte egindako lana azpimarratu dute.

Amen eta omen



AINGERU EPALTZA

Hamabortz urte latz izan dira, latz izan direnez. Gere mazelak koloretzen somatzen genituen Enderlatsako zubia gibelera utzita.

Buru-apal eta lotsagorriturik ailegatu izan gara Urtoko gainera.

Azken-putzak ginelako sentipen ezin uxatua lagun genuela inguratu dugu inoiz Araxeko pasabidea.

Bisita motzerako, parabisuan —herri-borrokaren parabisuan ala instituzioen parabisuan. Herorrek hauta— sartzen diren arima erratuak gisara gaingiditua gara. Etxegarateko mendatea.

Segur ginauden denetan, muga zeharkaturik eta lurralde horietako —parabisuko— lehen lagunarekin buruz buru eginda, nola edo hala, galdera saihestezina gaineratuko zitzaigula bere bortitz osoan: «eta zuek noiz arraio parekatuko zatzaizkigute?» Eta ahalkeari atxiki ahala atxikiz, amaginarrebari ebatsi 'Diario de Navarra' tolestua ateratzen genuen patrikatik eta esplikatzeko genion Ilunberrin 5 botu irabazi genituela hondar hauteskundeetatik honat, eta Zarrakaztelun 11, eta Luzaiden 14 galdu baina —dudik pe— berreskuratuko genituela foraletan, eta aitzina joaki ginela, motel baina tinko azken garai-penerako bide loriatsuan, eta...

Sufrikarioa.


Bizitzak bueltak ematen ditu, alabaina.

Igandiaz geroztik, Enderlatsako zubia, Urtoko gaina, Araxeko pasabidea eta Etxegarateko mendatea buru-xut iragaten ahal ditugu.

Lurralde horietako —parabisuko— lehen lagunarekin buruz buru egiten dugularik, ez diogu galdera ezpainartzeko astirik emanen. Gihaurek erosi 'Euskaldunon Egunkaria' aterako diegu bertetik gabe eta esplikatu, Mahoma mendiratu ez denez, mendiak egin duela Mahomarengana.

Ez gatzazkio parekatu. Aldiz, parekatzen hasi zaizkigu. Agian, hein berean izaten ahalgo gara, luze gabe.

Orain arte ohartu ez bagara ere, ama Espainiaren beso amultsuek denak berdintzen baikaitu bere besarkada estuan.



Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Euskal Artisten Elkarteari buruz erakusketa ikusgai dago Nafarroako Museoan, ekain osoan zehar. Pinturak dira denak, eta erakusketa Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoaren elkarlaguntzaz dago antolatuta.

Ximo Amigo artista valentziarra bertako pilotari buruz pintura erakusketa dauka ikusgai Iruñeko Gotorlekuaren Mistoen pabilioian. Bere lanek pilotarekin harreman estua daukate, elementu aberats eta ugarien bidez. Bisitatzeko orduak: 18.30etatik 20.00ak bitarte lanegutetan, eta 12.30etatik 14.00ak bitarte jaiegutetan.

IKASTAROAK



Piraguismo ikastaroa antolatu dute Sakanako Kirol Batzordea eta Bordatxoko Arraun Taldeek. Ikastaroa ekainaren 5, 12 eta 19an egingen da Izurdiagan, eta horretan parte hartzeko 1.000 pezetza ordaindu beharko dituzte 14 urte baino gutxiago dutenak, eta 2.000 zaharragoak direnak. Bete baldintza bakarra igeri egiten jakitea da, eta hotzaren beldur direnentzat neopreno jantziak prest daukate antolatzaileek. Izena emateko dei 46 08 59 edo 56 34 10 telefonoetara.

KIROLAK



Berute-Adoain mendi bizikleta gaineko irteera antolatu du iganderako Club Deportivo Navarra taldeak, eta horrekin batera Leitza-Adoain bitarteko mendi irteera ere. Izena emateko, ohi bezala, Iruñeko Jarauta kalean duen egoitzara jo behar da, 19.00ak 21.00ak bitarte.

Bardeetara mendi bizikletaz irteera antolatu du iganderako Sakanako Kirol Batzordeak. 54 kilometroz, lau ordu inguruz, Bardea Beltza ezagutzeko aukera izanen da, eta horretarako Altsa-suko Mendigoizaleak edo Irurungo Iratxe Elkartera deitzea besterik ez dago. Prezioa 1.000 pezetakoa izango da.

BESTELAKOAK




Udaberriko Bira Donejakue bidean izeneko kultur programazioaren barruan zenbait ekitaldi daude iragarrita asteburu honetarako. Horrela, bihar larunbata, 'Domingueros' izeneko antzezlan taularatuko du Tarma Antzerkiak Ziraukin, 18.00etatik aurrera. Larunbatean ere Sbart de Ville taldeak dantzak aurkeztuko ditu Arren 19.00etatik aurrera.

Abodin zehar

Abodi Aezkoa eta Zaraitzu bitarteko luzeran abailtzen den mendizerraren izena da, Irati ohianetatik bereizten duena. Ez da oso altua, gailurrak 1.520 metrotako altura baitauka, baina hotza da oso, eta urtero jasotzen duen 2.000 l/m2koaren parte handiena elurra da. Pagadi, hariztiak eta pinudiak estaltzen duten ia osoki mendizerra, eta iparraldean lehendabizikoak badira ugarietak, ozpeletan pinudia da nagusi.

Magalean gaur egun zelaiak dira franko, nahiz eta jatorrizko begetazioa pagadiak izango ziren. Nafarroako beste hainbeste menditan gertatu den bezala, begetazioa desagertzen hasi zen artaldeak zabaldu orduko. Azken urteotan izan den buruen murrizketak ere eragina izan du paisaian, sastraka eta zuhaixkak ugaltzen hasiak baitira beheko aldeetan.

Ibilbidea Larrañe eta Otsagabia lotzen duen Larrañeko gainetik ateratzen da, Pikatua izeneko tokitik. Bertan dago alde honetan kokatua dagoen aduanaren eraikina, gehiengutik itxita. Hortik ateratzen da



mendebalberantz daraman bidea, eta zenbait bidexkatan ugaltzen bada ere, erdikoari jarraituko diogu beti, txabola batzuetaraino heldu arte. Hortik aurrera Otsagabiatik Larrañe daraman bidetara utzi eta Abodiko gailurrera helduko gara, nahiz eta ikusmira apartekoa ez izan, hain den handia eta beretsua mendizerra osoa.

Hortik bueltan Gaztanbide izeneko bidetik daraman bi-

dea hartu, eta pista bateraino helduko gara, Zaraitzutik etortzen den bide nagusia aurkitu arte. Hortik, lasai-lasai, atera ginen lekuraino itzuliko gara.

Gaztanbide izeneko dermioan Abodin dauden trikuharritako bat ikus daiteke, 1.400 metrotara. Piriniotako katalogoan, Abodikoak dira, hain zuzen ere, altuenak, nahiz eta Gaztanbidekoa garaiena ez izan.

ASTEKO PERTSONAIK



Julian Garcia Vargas
Espainiako Defens Ministroa



Koldo Azpiazu
Eskultorea



Julian Retegi
Pilotaria

Esplainiako Armadak Bardeen «premia eta beharra» duela esateko hurbildu zen Julian Garcia Vargas ministroa Nafarroara. Ez dute, nonbait, ezertarako balio izan hainbat urtetan egin diren martxek, protestaldiak eta adierazpenak. Ez eta alderdien erabakiek, Bardeetako batzordearen beraren nahiak, ezta Nafarroako Parlamentuaren gomendioak ere. Bardeetan tiro poligonoak jarraituko du, Espainiako Armadak hala erabaki duelako. Eta hori ospatzeko, nonbait, suziri ederrak izan ziren asteazkenean, abioiak, bonbak eta guzti. Bitartean, ministroak parke naturalaren izendapena horrekin bat etor zitekeela ere esan zuen. Vargasendako, beraz, sailak, pinudiak, nekazariak, eta abarreko jendilajea lasai asko egon daiteke bonben artean. Hori marka.

Eskultore hernaniarrak milioi bateko isuna ordaindu beharko du Jorge Oteizak Agiñan (Lesaka) duen eskulturari egindako kalteak direla eta. Iruñeko epaitegi batean bere aurka zabaldu den epaiketaren «aski frogatua» eritzi zion epaileak Azpiazuren partaidetzari, nahiz eta honek behin eta berriro leporatzen diotena ukatu. Bere kontrako frogarik nagusienetakoa bertan aurkitutako eskutitza da, grafiaren arabera. Iazko urtean izan ziren gertakariak, Aita Donostiari egindako hilarriari kalte larriak eragin zizkionten, Aralar Komando Kulturarak sinatuta. Jorge Oteizak berehala aipatu zuen Koldo Azpiazuren izena, berarekin aspalditik datozen desadostasunak eta haserreak zirela eta.

Eskuineko hankan mina nuen, baina ongi disimulatu dut», esan zuen eratsundarrak joan den igandean Arretxerekin jokaturako partiduen ondotik. Alafede, ongi disimulatu zuela. Minik izan ez, errepaso ederra emango zion orduan luzaidarrari, partidua ez baitzuen inoiz arriskuan izan. Hala ere, mina benetakoa zen, jakina, eta bi astetan partidurik ezin izango duela jokatu azaldu zuen Ibarra doktoreak, eta beraz, Donostiako Anoeta frontoian Ladis Galarza barraibarra-ekin jokatu beharreko finala handia atzeratzea erabakiko du seguru-erik federazioak. Galarza, gutxi fida, sendatzen bada zaila izango baita lehia. Eta berak badaki zern den bete-betean dagoen Retegirekin jokatzeko.

AHAZTU GABE!

EMAKUMEA eta Zinemari buruzko ziklo interesgarria hasiko da gaur ostirala Iruñean, GITE elkarteak antolatuta. Iruñeko Golem Zinemetan, gaueko zortzietatik aurrera, Giulia Colazzi Hizkuntzen Teologian adituak emango du hitzaldia, eta lehendabiziko emanaldia astelehenean izanen da, Agnieszka Holland poloniarraren 'Oliver, Oliver' lanarekin.

Hurrengo asteartea, hilak 15, Pilar Miro zuzendari espainiarraren 'El Pájaro de la felicidad' filmea eskainiko da, eta asteazkenean berriz, Arantxa Lazkano zuzendari gipuzkoarraren 'Urte ilunak' luze-metrai.

Osteguna, hilak 17, Francesca Archibugiaren 'Verso Sera' ikusi ahal izango da Golem zinema aretoan. Aipaturiko zinema emanaldi guzti hauek gaueko zortzietan izango dira Iruñean.

Horrekin batera, zenbait kortometrai ere eskainiko dira, Emakumea eta zinemari buruzko jardunaldi hauetan, hala nola 'El amor es siempre joven', 'Hora punta' eta 'Troll' kortometraiak. Horiekin batera, Mirentxu Purroy zuzendari euskaldunaren 'Detras del tiempo'.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenean 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkar-izketak.

BESTAJIRA Euskalerria Irratiko saioa bete-betean izango duzu entzungai heldu den asteazkenean, eta astelehenean hain zuzen, uda partean izango diren zinemari buruzko aukeren berri zehatza emango dute saio honetan. Asteartean hiru abenturazaleekin elkar-izketak izango da, eta asteazkenean festazaleen uda aztertuko da: musikak, berbenak, udako kanta, gaueko martxa eta abar.



HERRIZ BERRI



Iruñea

Emakumezkoen berdintasunerantz

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Nafarroako Gobernuak Emakumearen Zuzendariordetza emakumezkoen eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak buruzko jardunaldi teknikoak antolatu ditu zenbait herritan, eta atzo izan zen Iruñean lehendabiziko saioa. Jardunaldi hauek emakumezkoen eta gizonezkoen izan beharreko berdintasunari buruz jendea jabetarazteko zuzendariordetza honek daraman politikaren barruan kokatzen dira. Horrela, ekainaren 15ean, astearte, Bertzen izango da jardunaldia; hilaren 17an, osteguna, Zangozan; hilaren 22an, astearte, Erriberri; 24ean, Tuteran, eta 29an, Lizarran.

Jardunaldi hauek arlo horretan lan egiten duten elkarte eta pertsonen daude zuzendurik, eta antolatzaileen helburua da beren proposamenak eta ekarpenak jasotzea, elkarriketa eta eztabaidaren bidez. Hain zuzen ere, ahalik eta anitzen izatearren zonetan sakabanatu dira jardunaldiak. Jardunaldi guztiek eskema berbera izango dute: 9.30etatik 11.30etara 'Emakume eta partaidetza soziala' gaia jorratuko da; 11.30etatik 12.00etara atseden; 12.00etatik 14.00etara 'Emakume, prestakuntza eta lana' gaiari buruz mahaingurua; eta 16.00etatik 18.00etara 'Emakume, zerbitzu sozialak eta osasuna' gaiari buruz mahaingurua.

Bertan hainbat arlo eta jatorritakoek hartuko dute parte: elkarrekin, alderdi politikoek, sindikatuek, kirol koordinatzaileek, liburutegietako langileak, hezkuntza arloko profesionalak, garapen arloko profesionalak eta abarrek.

Bestalde, irailean Iruñean izango diren jardunaldietan zuzendariordetza honek egin duen sentsibilizazio kanpainari buruzko emaitzak azalduko ditu. Kanpaina honen barruan Nafarroako emakumeen egoerari buruzko lana zegoen, eta horretarako 120 elkarriketatik gora egin dira arlo honetan jarduten duten profesionalen artean, Nafarroa osoko eskualdeetako herri garrantzitsuetan: Altsasu, Agoitz, Burlata, Deikaztelu, Elizondo, Lizarra, Larra, Lesaka, Lodosa, Urantzia, Milagro, Nabaskoze, Noain, Orkoien, Azkoien, San Adrian, Doneztebe eta Atarrabian, Iruñeaz gain.

Elkarriketa hauek gizarte zerbitzuen sarean, osasun zerbitzuak, emakume elkarteak, hainbat arlotako —hezkuntza, kirola, kultur arlokoak— arduradunak, politikariak eta Nafarroako



Emakumezkoen eta lanaren arteko harremanak aztertuko dira jardunaldietan.

arroako gizartearen beste hainbeste partaideekin egin dira. Horrekin batera, taldekako beste 20 bat elkarriketa egin dira, hainbat

arlo eta mailetako emakumeak mintza zitezen: lanbide hezkuntzakoak, batxilergoan ikasleak, unibertsitariak, langileak, etxeko

langileak, langabezian daudenak, baserrietako emakumeak eta adineko emakumeak, besteak beste.

Lekunberri


Euskararen eguna asteburuan

P. U. / IRUÑEA

Euskararen eguna ospatuko da asteburu honetan, larunbat eta igandez, Larraun eta Imotz-Basaburuko euskaltegiak, Euskara zerbitzuak eta Mitxasenean Lekunberriko Kultur Etxeak antolatuta. Horrela, bihar larunbata, hilak 12, arratsaldeko 5etan izanen da herriko haurrentzat txokolata jatea eta ondoren 'Kalabaza tripontzia' pelikula ikusteko aukera izanen da.

Igandean, 9etan, dianak izanen dira, eta 11etan, Meza Nagusia, korala, txistulariak eta bertsolariekin. Ondoren, eguerdian, pilota partiduak: Etxaniz-Errasti Soroa-Martinikorenaren aurka. 13etan, aizkora apostua izanen da eta bertan Mindegia aita-semea aurrez aurre ariko dira Nazabal eta Barberenaren aurrean.

13.30etatik aurrera 'Orritz' dantza taldearen emanaldia, eta 14.30etan herri bazkaria frontoian. Plater nagusia axuri izanen da. Arratsaldeko 17.00etan bertsolariak ariko dira, eta bertso saio dotore prestatu dute antolatzaileek: Manolo Arozena, Estitxu Arozena eta Amaia Teletxea nafarrak, Mañukorta bizkaitarrak, eta Lazkano eta Sorozabal gipuzkoarrak. Gai jartzaile lana Bittor Elizagoien arraiotza-



Larraun eta Imotz-Basaburuko euskara zerbitzuak antolatu dute eguna.

rrak burutuko du. Eguna amaitzeko Modesto ariko da, bertarutakoak alaitzen. Taberna ere izango da bertan, gaueko 22.00ak arte irekita.

Egunaren antolatzaileek Larraun, Basaburua eta Imotzko udalak, Lekunberriko Kontzejua eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso dute.



ALTSASUko ludotekak zabalduko ditu bere ateak heldu den astetik aurrera, eta bihar, larunbata, egingo da aurkezpen ofiziala. Bertan altsasuar txikienek jostailuz eta joku ugari gozatuko parada izango dute, eta aztertzen ari da larunbatetan eta astean zehar euskarazko saioak egiteko aukera. Bertan, zenbait monitoren, euskarazko joku eta denborapasak antolatuko lirake.

FITEROko monastegiko teilatuak eta estalkiak berritzeko 26 milioi pezetako dirulaguntza onartu du Nafarroako Gobernuak. 1984an hasi ziren lanei jarraiki. Monastegia 1140koa da, eta lanen bidez bere hegoaldea harriz estaliko da, teilatua berrituko da, eta zenbait tokitan zizelduko da, kanpoan dagoen harria azalean uzteko.

KODESko ostatu zaharra berrituko irekitzeko asmoa azaldu du Nafarroako Gobernuak, Joaquin Labiano Komertzio eta Turismo zuzendari orokorraren bidez. Labiano adierazi zuenez, urrirako Kodesi buruzko txosten turistikoa prestatuko du gobernuak, eta santutegia berpizteko bere nahia azaldu zuen, zonalde osorako baliogarria izango delakoan.



BERTIZARANAko zenbait bizilagunek idazki bat aurkeztu dute Nafarroako Parlamentuaren Giza Eskubideen Batzordean Miguel Oteiza alkatearen aurka, udalaren idazkaria den Ana Frauca Sagastibeltzari «tratu txarrak emateagatik». Bizilagunek azaltzen dutenez, 1991ko hauteskunde ondotik hasi ziren tratu txarrak, eta alkateak ez zik Esperanza Urdanabia alkate ordeari ere leporatzen diote jarrera. Tratu hauengatik idazkariak bi aldiz jasan ditu tentsio gogorrak, eta batengatik osasun zentru batera eramane behar izan zuten.

TAFALLAko Euskara Zerbitzuen aldeko mobilizazioen berri eman baguen duela pare bat aste, mobilizazioak ez direla ezertan mamitu aipatu behar oraingoan. Azken udalbatza UPNk zerbitzua sortzeko kontrako botoa eman zuen, eta PSN eta CDS abstenitu egin ziren. Zerbitzuaren aldeko batzordeak bere «harridura» azaldu du erabakiarengatik, kontuan harturik Nafarroako Gobernuak ematen dituen dirulaguntzak eta Zidakoseko herrian dauden euskaldunen kopurua.



Hau izan da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) behin-behineko azken ikasturtea, irailan osatuko baita klaustro eratzailea, behin-betiko estatutuak eta errektorea osatzeko eginbeharra izango duena. Orduan amaituko da lau urtetako bizi-tza gora-beheratsua, gaztea eta berria den unibertsitate orok dituen arazoekin eta beste zenbait gehiagorekin.

Unibertsitate barruan denek azpimarratzen dute data horrek daukan garrantzia, lehenengoz erabat autonomo eta osaturik agertuko baita erakunde. Botere politikoek egin dituzten eskusartzeek ez diote mesede handirik egin NUPi, eta azken asteotako gertakizunek ere ez dute oso irudi bakezua ematen.

Irakasleen artean —bereziki errektoretzarekin zerikusia dutenen artean, jakinik unibertsitatea askoz ere zabalagoa dela horiek baitute interes handiena bertan— iritzi kontrajarriak daude barruko egoerari buruz, baina gehienek unibertsitatea bide onetik doala azpimarratzen dute. Publikotasunak ematen dituen arazoak publikoak izanik ere.



Heldu den irailean osatuko da NUPko klaustro eratzailea.

OSKAR MONTERO

Arazo publikoak

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Unibertsitate barruko azken asteotako informazioek, baina, ez dute oso irudi lasaia eman. Irakasleek jasotzen zuten ordainsarien legaltasunari buruzko eztabaida plazaratu zuen egunkari batek, nahiz eta Gobernu Batzordea horren aurrean azaldu, eta joan den asteen egindako bilera batean Juan Garcia Blasco errektoreak kargua uztea ere aipatu zuen, bertan izan ziren desadostasunak zirela medio. Arazo puntualak izanik ere, balorazio desberdinak egiten dituzte irakasleek, eta batzuek, errektoreak barne, unibertsitate publiko batek duen izakera irekia eta demokratikoa azpimarratzen badute ere, besteek, hala nola Alberto Gonzalez errektore ohiak, egoera «baterela lasaia ez» dela diote.

«Irakasle talde batzuek nahasi dute giroa» azaltzen du Gonzalezek, «ez baitira jarrera unibertsitario garbia erakusten ari. Dagoeneko kanpaina egiten ari dira, eta horrek min egiten dio Unibertsitateari, irakaslearen eta errektorearen arteko tentsioak sortzen baitituzte». Bere ustez, arazoak ez dira ohizkoak edo normalak, eta osatzen ari den unibertsitate bati lasaitasuna eman behar zaiola azpimarratzen du. «Tentsioak sortzen badira, trabak etengabe jartzen baldin badira, osaketa prozesua desitxuratua izango da, eta unibertsitatearen kalterakoa izango da».

Javier Etxeberria Gobernu Batzordeko Idazkari Nagusiaren ustetan, ordea, unibertsitatean dauden iritzi ezberdinei leporatu behar zaie kanpoan izaniko irudia, baina giroa «normala» dela azaltzen du. «Unibertsitate pu-

blikoetan giroa ez da inoiz lasaia izaten. Berez, irekiak dira, eta parte guztiek dute ahotsa, eta iritzia. Horrek dakartza zurrumurruak eta eztabaidak, baina ezin da esan aurrera ateratzeko ezinean gaudela. Zerbait mugitzen ari da, baina hori beti gertatu da». Iritzi berekoa da Joseba De la Torre, Historia eta Erakunde Ekonomikoetako irakaslea. «Osa-sungarria da iritzi ezberdinak plazaratzeko tokia eta bideak izatea, eta, hain zuzen ere, bide horretatik joan behar du unibertsitateak, sentsibilitate ezberdin guztiak azkenean batu eta barruko bizitza eragiteko».

ERREKTOREEK PROTAGONISMO HANDIA

Ez da hau izan, baina, une eztabaidagarriena. Unibertsitatea sortu zenetik, duela lau urte, errektoreek behar baino protagonismo handiagoa hartu dute bere osatze prozesuan, eta bereziki Pedro Burillo lehen errektorea gobernuak kargutik kendu zuenean, oso egoera gogorra bizi zen unibertsitate barruan. Horrek irudi kaltegarria eman zuela onartzen dute denek, eta botere publikoek unibertsitatea kontrolatzeko zuten nahiei leporatzen.

«Politikariek badute unibertsitatearen ideia bat», azaltzen du

Etxeberriak, «eta horrek balio politikoa dauka haien zat. Eskusartze horiek ez ziren komenigarriak izan, lehendabiziko urteetan jarraipena behar zuelako unibertsitateak». Errektore aldaketek ohizko martxa «geldiarazi» zuten baina, hala ere, erakunde osatzeko aurretik paratuta zeuden epeak bete egin direla nabarmentzen du De la Torre. Nola nahi ere, kaltea eginga zen, bereziki kanpora begira. «Unibertsitatearen barruan ez zuen eragin handirik», dio Emilio Huerta Enpresa antolaketa katedradunak, «ikerkuntza lana errektoretza taldeak egiten duenaren aparte baitago, eta zentzu horretan, egoerari garrantzia kendu egin behar zaio: unibertsitatea ongi dabil, eta ongi aritu da lanean urteotan. Hala ere, kanpora begira arazo horiek oso kaltegarriak izan dira, iskanbila, tentsio eta gatazka irudia eman dutelako. Eta irudia oso garrantzitsua da osatzen ari den unibertsitate batean».

PLANGINTZA OROKORRA GUSTUKOA

Arazoak arazo, Gobernu Batzordeak aurkeztutako hurrengo hiru urteetarako Plangintza Orokorra ia denen gustukoa da. Bertan azpimarratzen da gaur egun dauden ti-

tulazioak sendotu eta finkatu beharra, eta baita ikerkuntza lanari bultzada ematea ere. Eta hauek dira funtsezko arloak. «Ikerkuntza lana funtsezkoa da unibertsitatearendako», dio De la Torre, «askotan ahazten baita betebeharrak. Hemendik aterako den jendea gero ikerkuntzan proiektatzen ez bada, porrotaz hitz egin beharko genuke. Hori ulertu du oraingo Gobernu Batzordeak, eta etorriko den edozein batzordek gauza bera egin beharko du».

Alberto Gonzalez, berriro ere, kritiko ageri da orokorrean unibertsitatearen martxarekin, eta etorkizunari begira «nahiko eszeptikoa» dela dio. «Gaur egun garrantzi handiagoa ematen ari zaio zenbait gauzari irakaskuntzari baino. Eta kanpotik etorritako irakasle askori ikerkuntza interesatzen zaio gehiago. Baina bospasei urte barru ikusiko da unibertsitate honek gizarteak eskatzen duenari erantzuna eman dion. Nafarroan 20 urte barru hemendik eta beste unibertsitateetatik ateratakoek aginduko dute, eta irakaskuntza txarra ematen badiugu oso larria izango da».

Hori da irakasle gehienek kezka, eta batzuk irakaskuntzari behar den arreta nahikoa ez eskaintzeaz beldur dira. «Badago osaketa prozesuan ahalegin gehiegi xahutzeko arriskua» dio Huertak, «eta prozesua oso garrantzitsua da, dudarik gabe, baina aprobetxatu genitzake beste unibertsitateen esperientziak ere, azken finean, ezin baita gauza berri handirik asmatu. Saiatu beharko genuke prozesua ahal bezain azkarra izan dadin, gure betebeharrak nagusi irakaskuntza eta ikerkuntzan baitago».



A. B. / IRUNEA

Juan Garcia Blascok 1992ko maiatzaren 4ean hartu zuen errektore kargua, Alberto Gonzalez donostiarrak «presio politikoak zirela medio» utzi ondoren. Hirugarren errektorea lau urte eskasetan. Garcia Blascok garai txarrean hartu zuen agintea, Gonzalezen izendapena egiteko modua franko kritikatu baitzuten bai Unibertsitatearen barruan, bai oposizioako taldeen artean ere. Gaur egun, irakasleek garai horri eta gobernuaren eskusartze haiei leporatzen diete Unibertsitateak kanpora begira proiektatu duen irudi nahasia.

Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidean doktore den honek, baina, bide onetik eraman du Unibertsitate gaztea, eta bere taldeak aurkeztutako egitasmo orokorrekin instituzioaren onespina daukate. Errektoretza erai-kin berri-berrian —fardelak oraindik pilatuta daude geletan—, garrantzia kentzen die azken hilabeteotako arazoei, eta sinetsirik dago iraila data garrantzitsua izango dela Unibertsitatearendako, izan ere. Horregatik behin eta berriro azpimarratzen du arazoak Unibertsitateak berak izan behar dituen identitatearen seinaleak direla: «Anitza, demokratikoa eta iritzi ezberdinen biltzailea». Hori, bere ustetan, «zaila da ulertaraztea unibertsitate pribatu batekin ohituta egon den gizarte batean».

EGUNKARIA.— Irailan osatuko da klaustro eratzaila, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarendako funtsezko data izango da hori, hortik aurrera Unibertsitate bere egitura organiko eta independentea osatzen hasiko baita. Hala ere, unibertsitate gazteetan beti daude lehiak eta interesak errektore postua eskuratzeko. Nola aurrikusten duzu lehia hori? Iskanbilatsua, eztabaidatua, normala izango da?

JUAN GARCIA BLASCO.— Iraila data garrantzitsua izango da, dudarik gabe. Duela gutxi egindako hauteskundeetan ateratako klaustroa izango da orduan osatuko dena, eta, beraz, Unibertsitatearen autonomiarako lehen-dabiziko harria paratuko da. Hor amaituko da lau urteotan izan dugun behin-behineko egitura, eta hortik aterako den errektorearen lana orain arte egindakoari jarraipena ematea izango da. Ez dakit oso iskanbilatsua izango den. Logikaz, klaustroaren gehiengoak lortuko duen proiektua aurkeztuko da, helburu zehatz

Unibertsitateak zuen egoera zela eta sartu zuen eskua botere publikoak. Irailetik aurrera ez da, inolaz ere, horrelakorik izango».



Juan Garcia Blasco unibertsitatearen hirugarren errektorea da.

O.M.

«Zaila da jendeari ulertaraztea unibertsitate publikoa zer den»

batekin: Unibertsitatearen behin-betirako estatutuak onartzea. Unibertsitate guztiak egun dute bide hau, eta ahalik eta modu orekatuenan eta zentzuzkoen egin behar da.

EGUNKARIA.— Baina azken hilabeteotan izan dira zenbait arazo, bai irakasleek jasotzen zituzten ordainsariak zirela eta, bai azken Gobernu Batzordean zu eta zure lan taldeko zenbait partaideren artean izaniko desadostasunengatik. Horrek kanpora begira istiluen itxura ematen du. Nola dago giroa?

GARCIA BLASCO.— Publikoa eta anitza den unibertsitate baten arazo normalak dira. Erabakiak demokratikoki hartzen dira, eta ez du harritu behar, beraz, zenbait erabakik eztabaida sortzeak. Ez zaio behar baino garrantzi handiagorik eman behar, hain zuzen ere eztabaidak, kritikak, dinamismoa eta jarrera ezberdinen seinaleak baitira. Hau da, unibertsitatearen funtzioen seinaleak.

EGUNKARIA.— Hiru errektore izan dira, eta askotan kritikatu dira Gobernuak egindako eskusartzeak. Bereziki iskanbilatsua izan da bide hau edo unibertsitate gazte baten ohizkoa?

GARCIA BLASCO.— Unibertsitateak zuen egoera zela eta sartu zuen eskua botere publikoak. Irailetik aurrera nik uste dut ez dela, inondik inora horrelakorik gertatuko. Hemendik aurrera Gobernuak duen betekizuna beteko duelakoan nago, hau da, aurrekontuena. Gainontzeko erabaki guztiak Unibertsitateak hartu beharko ditu. Horregatik, eskusartze horiek, edo hobeto

esanda, partehartze horiek —ez derrigorrez kaltegarriak—, ez dira aurrerantzean gertatuko. Ziur nago ordutik aurrera botere publiko orok behar duen laguntza emango diotela Unibertsitateari.

EGUNKARIA.— Zergatik uste duzu eskusartze gehiago ez dela izango?

GARCIA BLASCO.— Hain zuzen

ere, Unibertsitateak osakera berezkoa izango duelako. Eta horrek debeku erabatekoa jartzen dio kanpoko eskusartzeari.

EGUNKARIA.— Nafarroan bada beste unibertsitate bat, eta hasieran 'osagarritasunaz' hitz egin zen, hau da, Unibertsitate pribatu horren eskaintza ez biderkatzeaz. Gutxiagotasun sentimendurik ba



«Eztabaidak normalak dira, unibertsitatearen seinaleak baitira». O.M.

al dago oraindik?

GARCIA BLASCO.— Ezta inondik inora ere! Kontrakoa esango nuke. Unibertsitatean bada nahiko zabaldua dagoen ustea, gizarteak eskatzen dituen ikasketak eskaintzeko. Era berean, beste erakundean baldin badaude ikasketa horiek, askoz hobeto, horren lehia izango baita. Arazo hori ez dago jadanik eta eztabaida antzua dela uste dut. Gure kezkak hezkuntza ona eta kalitateko ikasketak eskaintzea behar du izan, beste erakundeak eskaintzen duena eskaintzen duela.

EGUNKARIA.— Kanpoko irakasleak ekartzeko irizpideei buruz ere eztabaida izan da. Aurrekontuak nahikoa dira horretarako?

GARCIA BLASCO.— Guk ahalegin guztiak egingo ditugu Unibertsitateak behar dituen aurrekontuak lortu beharraz jabea-razteko alderdiak eta Gobernuak. Horren bidez osatuko dugu gure irakasleak, eta horretarako maila handiko irakasleak ekarri behar ditugu.

EGUNKARIA.— Eta horretarako aldeko jarrerarik ba al dago?

GARCIA BLASCO.— Batzuetan badaude arazoak helburu hau ulertzeko, baina nik uste dut, luze gabe, botere publikoen artean dagoen nahia Unibertsitate hau bultzatzeko aurrekontu egokietan mamituko dela.

EGUNKARIA.— Unibertsitatea behin martxan egonda, zein lirake lehen mailako helburuak?

GARCIA BLASCO.— Gobernuari eta Parlamentuari igorri diegun egitasmo estrategikoan nahiko ongi zehaztuta daude helburuak: lehenik, dauden titulazioak indartu eta finkatu eta bigarrenik, titulazio berriren bat ezarri, gizartearen eskaerari erreparatu.

EGUNKARIA.— Lau urte hauetan Nafarroako Unibertsitate Publikoak gizarteak espero zuenari erantzun diola uste duzu?

GARCIA BLASCO.— Lehendabiziko urteetan izandako gorabeherak ez zioten onik egin Unibertsitateari, eta nahasketa sortzeko baliagarriak izan ziren. Zorionez, gaur egun egiten ari den gauza bakarra da gogoz lan egitea, eta uste dut gizarteak ulertzen hasia dela Unibertsitatearen betekizuna. Ahalegin handiak egiten ari gara, baina ez da erreza ulertaraztea zer den unibertsitate publikoa, anitza eta partaidetza bultzatzen duena, demokratikoa finean, unibertsitate pribatu batekin ohituta dagoen gizarte batean. Sinetsirik nago, baina, sensibiltate berezia badagoela gizartearen Unibertsitate honekiko.

Kritikak, eztabaidak, dinamismoaren eta jarrera ezberdinen seinale dira. Hau da, unibertsitatearen beraren bete-beharren seinale».

Gazteendako Zokoa



Udaberri txapelketarako 6. jardunaldiko partida, 1993ko maiatzaren 29an jokatu. Rafael Ruiz Escobar (2.070 ELO) txurriekin, J.M.Muruzabalen (2.350) aurka.

1.d4,Zf6; 2.Zf3,d5; 3.Zc3,Af5; 4.Af4,c6; 5.h3,e6; 6.e3,Da5; 7.Ad3Ab4; 8.Dd2,Ze4; 9.Ae4, Ae4; 10.Ze5,f6; 11.Zd3,Ac3; 12.c3Zd7; 13.0-0,Ad3; 14.d3, 0-0; 15.fg-b1,b6; 16.Ad6,fG-e8; 17.a4,aG-c8; 18.De2,c5; 19.c4, d4; 20.Ab4. Tentaldiari ez dio eutsi, eta horregatik galduko du peoi bat. 20..., Da6; 21.d5,e3; 22. e3. Bestela, 22.e6,f2 xa; 23.Ef2, Ze5. Peoi bat lortuko lukete beltzek. 22..., d5; 23.a5,b5; 24.d4, Gc4; 25 Dh5,De6; 26.Ga3,a6; 27.aG-b3,Zb8; 28.Gf1,Zc6; 29. Ae1,g6; 30.Dh6,f5; 31.Eh2,Zd8; 32.Df4,Zf7; 33.Ag3,eG-c8; 34. h4,Ga4; 35.Ae1,Ga2; 36.Ab4, cG-c2; 37.Gc2. Ez da ona. 37..., Gc2; 38.Db8 xa, Eg7; 39. Af8 xa,Ef6; 40.e4,Gg2 xa; 41.Eh1, De4; 42.Db6 xa, De6; 43.Ag7 xa, Eg7; 44.De6,gG-e2. Amaiera ikusgarri honekin, beltzak nagusitu ziren.

Bertsoak

Herriko festei bertsoak. Baztango Bertso Eskola.

Ikastolara iritxi eta
esamina egitera
gero ondoren errekreoa
belaxe nintzen atera
Iruritar iritxi ondoren
banoa blusa hartzera
hamabietan txupinazoak
festei eman hasiera

Asteazkena eta osteguna
abudo zaizkit pastuak
diru guztiak eskuetatik
abudo esfumatuak
barraka horiek errudun dira
eta gu berriz astuak
hargatik ditut diru beharrak
eta sakelak hustuak

Iñaki Etxandi

Jenero Xumekoak

Peligro Benta (III)

L Zuri-zuria nintzen belarretara joatean. Eguzkiak jo eta beltz-beltza. Hala eta guztiz ere begira ze ederra naizen.

JEREMIAS ERRO

Sentimendu arraroa

ESTITXU SUBIZA

Urduri nengoen, oso leku berezia zen eta bakarrik gurasoak, ezezagun bat eta ni geunden txalupa txiki batean, eta nahiz eta ibaia trankil egon beldurra nuen. Beharbada ibaiaz entzuna nuenagatik izango zen, baina dena den ni zerbaitengatik urduri nengoen, eta zergaiti hori jakin nahi nuen.

Bidaia hasi zen, gure txalupa txikian gindoazen gu lau-
rok, ibaia oso haundia zen, ertzeetan izugarritzko landaretza, ura mantso-mantso, eta gu han bakarrik. Bapatean ibaitik ateratzen zen erreka txiki batetik sartu ginen, eta gu han bakarrik.

Ibai txiki hori oso estua zen, baina ur asko eramaten zuen. Ibaiaren bi ertzetako landaretza gure gainean elkartzen zen landaretza bakar bat naturan sortuz. Ura mantso-mantso zihuan gurekin batera, eta gu

dordokekin bat.

Oso urduri nengoen, baina pixkanaka-pixkanaka ulertzen hasia nuen beldurra ez zen urduritasun hori. Gu gure txalupan lasai-lasai, hitzik esan gabe, gure arnasaz oroitzen ez ginela, soilik txorien kanta arraroak, dordoka tontoren batek harri batetik erortzerakoan sortzen zuen zarata, eta kokodriloak ertz baten agertzen zirenean geuk ematen geniteun oihuak baino ez genuen entzuten.

Eta ni gero eta zihurrago nengoen nire urduritasunaren arrazoiak, baina ni han, txaluparen aurreko alde horretan etzanda goitik pasatzen ziren adarrak eta zubiak burua ez kolpatzeko, eta handik zeuden animaliek ni ez harrapatzeko.

Nire begirada alde batetik bestera zihuan denbora guttian, baina bapatean aurrera zuzen-zuzen begiratzen gelditu nintzen, eta orduan ulertu

nuen zergatik urduritasun hori, zergaitik alde batetik bestera begiratzen nuen denbora guttian; momentu horretan ulertu nituen gauza asko, nola munduko leku politenetariko batean nengoen, eta seguraski horrelako leku asko egongo ziren orain dela urte asko, eta baita ulertu nuen nola badauden animalia libreak, eta nola momentu askotan bakardadea oso ona den. Momentu hartan konturatu nintzen gauza gehiagoz, baina inoiz baino zoriontsu, aske, eta lasaiago sentitu nintzen, ezertan pentsatu beharrik izateke, edertasunaz inguratuta, nahi nuena egiteko ahalmenarekin.

Badakit momentu horrek ez zuela asko iraungo, geroago aspertuko nintzatekeela, azkar gogoratuko nintzatekeela gauza eta jende askotaz, baina izugarritzko esperientzia eta momentua izan zen, eta uste dut inoiz ez dudala ahaztuko.



Berriain-San Donato


Txoko honetan San Cristobal eta Ezkaba aztertu genuen. Tuenean santu-izenek zuten indarra azpimarratu genuen. Adibide ezagunak paratuko ditut. Erga mendiari gero eta gehiago deitzen zaio Trinidad de Erga edo Ergako Trinitatea, tontorrean dagoen ermitagatik. San Miguel de Izaga aditzen da maiz eta mendiari ere deitzeko erabiltzen da. Laburbilduz, aurreneko fasean mendi baten izen zaharrari bertan gurtzen den santuaren izena eranstean zaio eta bigarren, santuaren izenak toponimo zaharra ezabatzen du. Baina ez da hori gaurko kasua. Berriain nahiz San Donato, biak batera, erabiltzen dira euskaraz eta erdaraz. Zenbait planotan, esate baterako, Berriain tontorra da eta San Donato, ermita izateaz gain, mendi osoa (Sierra de San Donato). Toponimia Taldeak mendi muturraren zatia Berriain aukeratu du eta San Donato ermita, erreka eta paraje bat, Cuesta de San Donato, izendatzeko. Jakina, izen guzti hauek Andian kokatzen dira.

Aitortu behar da, haatik, planoek eta mendiliburuek garrantzi haundia izan dutela Berriainek gaur arte bizirik iraun dezan. Bertako jendeak ere ahaztuxea du izena. Beimpunta edo Beeimpunte deitzen diote bakan batzuek punta-puntari. Berriain izen hutsa apenas adituko dugu inguruko herrietan. Lehenago esan bezala, izenak liburuei zor die gaur duen ospea. Berriain bizirik dago R.Carasatorrek Etxarrin bildutako esaldi honetan 'Burube du Beingo Malkorra beño gooroo'.

Baina liburuek izena gorde badute ere, aldatu ere aldatu egin dute. Dokumentazioari begira Berriain edo Begain irakurtzen dugu beti. Berriain, berriz, Iruña ondoan dagoen herriagatik atera zuen norbaitek eta emeki-emeki, mendiliburuen eraginaz, forma hau gure artean barreiatu da. Aldaketa txikia zelako eta Berriain ofizialtzat hartzea alperrikakoa zelakoan (Berriain-Berriain-San Donato hirukotea erokeria izanzen zelarik) Berriain aukeratu dugu.

Beraz Andia mendi osoaren izena da (Sierra de Satrustegi, Sierra de San Donato eta euskarazko itzulpenak sobran daude). Azken puskari Berriain esan behariko genioke eta Berriainpunta azkeneko muturrari. San Donato, berriz, ermita ondoko zonaldeari. Hala ere askotan ezin dira bi izenen arteko mugak erabat markatu. Horregatik San Donato eta Berriain, biak batera, sinonimoak balira bezala, erabil genitzake.

MIKEL BELASKO



KAZKARROAN

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Abiapuntura jo
2. Zakar
3. Herri nafarra
4. Lilia
5. Eztenak

1	2	3	4	5
1	2		4	
3				
	4			
5				

1. Zakar, ez eder
2. Fruitu mota
3. Herri nafarra
4. Soldata
5. Eguraldiak

1	2	3	4	5
1	2		4	
3				
	4			
5				

1. Udai nafarra
2. X. hilabetea
3. Urrun
4. Jitea, itxura
5. Behizainak

1	2	3	4	5
1	2		4	
3				
	4			
5				

Bizi Bizian

Kuba da azken urteotako tokirik gogokoenetakoa oporrak igarotzeko. Eta Kubara Euskal Herritik doazen bidaiariak kopuru handienetakoa osatzen dute nazioarte mailan. Karibeko lur haietara joan ziren bi altsasuar gogotsuei herri

horren alde zerbait egitea bururatu zitzaien, eta hara non abuztuan Kubako hiruburua den La Habanan egingo den futbito txapelketarako taldeak eramatea otu zitzaien. Kuba futbito, futbitoa salsaz.

Futbito salsaz

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Kuba salsaz bai, baina Kuba futbolaz? Hauxe da bi altsasuarren egitasmoa: Kubara joateaz aparte, bertan abuztuan antolatuko den Futbito Txapelketara taldeak eramatea. Asmoa bertan zeudelarik sortu zen, hondartzan pasiatzen ari zirela zerbait antolatzea bururatu zitzaientean. Eta futbitoaz pentsatu zuten. Izan ere, Kuban beisbola da nagusi egun, baina estatubatuarrak bertan sartu baino lehen, bazeuden futbol taldeak.

Pentsatu eta aguro asko erabaki. Bertako agintariekin hitz egin zuten, eta Kubako Futbol Federazioko presidenteak La Habana Hiriko Futbito Txapelketa antolatzeko asmotan zeudela azaldu zien. «Orduan, txapelketa eta futbitoa bera bultzatzeko» azaldu zuen Jose Manuel Augusto antolatzailetako batek, «hemengo taldeekin harremanetan jarri eta bertako zein Estatu espainol osoko taldeekin txapelketa egitea bururatu zitzaigun».

Lehendabiziko urratsa horretarako kiroldegiak bilatzea izan zen, eskaski baitaibiltza bertan baita instalakuntzetan ere. Behin lortuta, alojamendua izan zen bigarren arazoa. Horretarako, bertan dagoen Villa Panamericana izeneko urbanizazioa erabiltzea erabaki zuten, instalakuntza eta zerbitzu guztiekin.

Txapelketan 32 taldek hartuko dute parte, eta Estatu espainolek 28 eraman nahi dituzte. Alejandro eta Manuel arduratzen dira Euskal Herriko taldeez, eta oraindik bidaiaren zehaztasun guztiak lotu ez badituzte ere —heldu den astean zehazturik izango dutelakoan daude—, bidaiatzearen eta desberdina eskaini dute, turismoa, Kubari laguntza eta kirola baturik.

«Gu bakarrik izena eta txapelketa bera antolatzeaz arduratzen gara, eta Caribe Tours enpresa bidaiaraz eta gainontzeko guztiaz. Horregatik, jendeak aukeran du edo txapelketan soilik parte hartu edo horretaz gain gero egun batzuk han eman». Txapelketak zazpi egun iraungo du. Hori bai, garbi utzi nahi dute ez dela horretarako profesionala izan behar. «Soilik hara joan eta Kuba bisitatzeko gogoa duen jendea eraman nahi dugu, ez, inondik inora profesionalak». Lehen saria milioi batekoa izango da, bigarrena milioi erdikoa, eta hirugarren postuan geldituko den taldeak Cabaret Tropicanan gau bat pasatzeko aukera izango du.



«Ez dute barrea galdu»

A.B. / IRUNEA

■ «Txapelketak izugarriko arrakasta izango du ziur aski, hangoek gauza guztietarako irekiak baitira». Alejandro azaldu duenez, La Habanak ez dauka zerikusirik Euskal Herriko edo Europa osoko inongo hirirekin, eta kirola barru-barruraino sartuta dutela dio. «La Habanako erdi-erdian aurki daitetzeke mutikoak beisbolean jolasten, edo kaniketan, eta duten egoerak ere horretara behartzen ditu». Izan ere, egun jende gehiena bizikleta gainean ibiltzen da, eta hemen ezagunak diren aisialdirako beste aukeren faltan,

kirolera jotzen dute askok.

Antolatzaileen asmoa ez da txapelketa soilik antolatzea, baina baita kubatarrei ere mesede egitea, nolabait. «Guk nahi ditugu jendeak bigarren kamiseta han uztea, baloiak eramatea, oso egoera gogorra jasaten ari baitira». Nolanahi ere, barrerik oraindik ez dutela galdu dio Alejandro. «Txisteak egingen dituzte ezbeharrari buruz, izatez herri alaiak baita Kuba». Hori dela eta, txapelketaren arrakasta ziurtaturik dagoela diote. «Har-mailak beteta egongo dira, eta izugarriko giroa izango da, batez ere Kubako talderen bat lehian badago».

Angel Mendaza

fisiokulturista

Noan den igandean Angel Mendaza nafarra Estatuko fisiko-kulturismoko txapeldunordea izan zen Iruñean egindako txapelketan. Oso emaitza ona urte askotan

gogor entrenatzen aritu ondoren, are gehiago kontuan izanik txapeldunak puntu erdiko aldea besterik ez ziola atera. Emaitza hau lortzeko urteetan egin duen lanaren berri eman digu.

«Minean zentratuz lantzen da giharra»

MIKEL MENDIZABAL / IRUÑEA

Betidanik gustatu izan zaio Angel Mendazari pesekin aritzea. Txikitan, bere aitak pesekin nola entrenatzen zen ikusten zuen eta agian horrexegatik, zenbait kirol mota egin ondoren, fisiokulturismoan serioki aritzea erabaki zuen. Emaitzak segituan iritsi ziren, Euskadiko txapelketa aurkeztu eta bigarren postua lortu baitzuen eta ondoren beste hainbat eta hainbat sari, igandean Estatuko bigarren postua lortu arte.

EGUNKARIA.— Gogorrak izan behar dute egiten dituzuen entrenamenduek.

ANGEL MENDAZA.— Egunean bi ordu terdi inguru entrenatzen naiz eta zenbait entrenamendutan 70.000 kilo altxatzen ahal ditugu. Bizkarra, hankak, bularra... denetatik. Kontuan izan behar da kulturismoa oso kirol konpletoa dela. Adibidez, halterofilian aritzeko indar esplosiboa behar izaten da, azkartasuna, agudo abiatzea derrigorrezkoa da. Bizkarreko beheko aldea eta hanka sendoak izatea oso garrantzitsua da. Kulturismoan ordea, gorputz guztiko giharrek landu behar dituzu eta jakina, askoz konpletoagoa eta osasuntsuagoa da. Berez, kulturismoan ez dira halterofilian bezainbeste lesio izaten.

EGUNKARIA.— Elikadura ere zaindu beharko duzue.

MENDAZA.— Erabat. Ez baduzu zaintzen, ez duzu ezer egiterik. Aminoazidoak, proteinak, bitaminak... oso garestia da. Batzuetan esaten da, zenbaitek hormonak eta, hartzen dituztela. Ez da nire kasua eta egia esateko nire inguruan ez dut horrelakorik sekula entzun. Dopin kontrako azterketak egiten dira baina txapelketa oso garrantzitsuetan bakarrik, beraz, ez da jakiten ahal gure

mailan egiten diren ala ez.

EGUNKARIA.— Gorputzeko zenbait alde garatzea, besteak baino zailagoa al da?

MENDAZA.— Askotan esan ohi da hori, hankak zailtzeko ordu gehiago behar direla eta, baina ez da egia. Niri adibidez, gehiago kostatzen zait besoak garatzea, baina beste bati bularra.

EGUNKARIA.— Badirudi osasunerako txarra izan behar duela kirol honek.

MENDAZA.— Nik uste dut beste edozein kirol bezala dela. Hau da, gorputza sasoian izateko besterik ez baduzu egiten, uste dut ona dela, oso ona esango nuke. Giharrek lantzen dituzu, sendotzen dituzu eta hori ona da, bestela gorputza zozotua geratzen da. Goi-mailako lehiaketa, berriz, ba beste istorio bat da, hemen dena muturreraino eramaten delako eta uste dut, noizbait, neke guzti honek bere ondorioak izango dituela.

EGUNKARIA.— Zer gertatuko litzazuke, hemendik bost urtera pesak egiteari utziko bazenio. Gorputza ez al litzazuke xehe-tuko?

MENDAZA.— Hori edozein kirolekin gertatzen da. Zer gertatzen da hainbeste eta hainbeste futbolari edo txirrindularirekin? Ba kirola uzten dutenean pilo bat gizentzen direla, gorputza baldartzen zaiela. Gainera jende askok kirola uzten duenean, urtetan egin ez dituen parrandak egin nahi ditu eta egoera are gehiago makurtzen da. Kirol bat ezin da sekulan kolpez utzi, beti pixkanaka egin behar da, gradualki, bestela jai duzu. Nik uste dut sekula ez dudala kirol hau utziko. Noizbait lehiaketak utzi beharko ditut, baina segituko dut nere kontura praktikatzeko eta ziur gorputza ezer egiten ez duen batek baino askoz hobeto izango dudala.

EGUNKARIA.— Zein da kirol hau



ALFONSO PEREZ

praktikatzeko adin egokia?

MENDAZA.— Hori da, hain zuzen, kirol honek duen abantailarik handienetakoa. Ez dut uste horrenbeste urtez praktikatzen ahal den kirolik existitzen denik. Badira goi mailako kirolari profesionalak hirurogeitaka urte dituztenak. Eta lehiaketetan emaitza onak izanik! Adibidez, berrogeita hamar urteko jende asko

dago. Hor dugu, adibidez, Isidro Larrazabal bilbotarra, berrogeita hamabi urte ditu eta inongo osasun arazorik gabe.

EGUNKARIA.— Ematen duena baino teknikoagoa da kirol hau.

MENDAZA.— Dударik gabe. Gihar bakoitza bereiztua entrenatu behar duzu eta ez da batere erraza entrenatzen jakitea. Urteak behar dira kontatzen dizudan

Ez dut uste horrenbeste urtez praktikatzen ahal den kirolik esistitzen denik. Hemen badira hirurogei urteko goi mailako kirolariak».

guztia mamitzeko. Bada beste gauza bat, jendea ulertzen kostatzen zaiona, eta hau zure buruaren jarrera da. Zure burua kontrolatzea lortzen baduzu, ikaragarri aurreratzen duzu. Ez da gauza bera pisua altxatzen aritzea eta pisua altxatzeaz gain pisu hori mentalki sentitzea. Min fisikoa nahi den tokian sentitu behar da.

EGUNKARIA.— Zenbat kategoria daude txapelketetan?

MENDAZA.— Kulturismoan bi elkarte daude. Batak altuera du kontuan eta besteak, berriz, pisua. Nere elkarteak altuera du kontuan. Maila txikia 1.68 arte da. Erdikoa, berriz 1.75 arte eta handia hortik aurrera. Bertan kategoria desberdinak ditugu, juniorrak, seniorrak eta masterrak, berrogei urtetik gorako jendearentzat. Nahiz eta zahar asko senior kategorian lehiatu. Emakumetan ere, hiru maila altueraren arabera eta fitness kategoria. Hemen ez dira bakarrik giharrek kontuan hartzen, gorputzaren liraintasuna baizik, nahiz eta gihar ederrak izan. Kontuan izan behar da, gizonetan ere ez dela bakarrik zenbateko giharra duzun. Derrigorrezkoa da gorputza orekatua, proportzionatua izatea. Bada jende asko, gorputzeko goiko aldea oso garatua duena eta behekoa, berriz, oso gutxi, eta noski, normalean txapelketetan ez dute zer egirik.

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

